

Xabier Letona



DANI BLANCO

## Altxa kopa hori!

**LERRO** hauek idazten dituenak maite du futbola biziki. Hobeto esanda, batez ere jokatzeko maite izan du. Eta telebistako futbol partidu onak ere gustuko ditu, zertarako gezurrik esan. Partidu asko eskasak dira edo balekoak, gutxiago onak eta bakan batzuk bikainak, baina ai azken hauen arrastoa zein sakona den. Futbol zelaikoa oso bestelakoa da, zirrarak harmailez harmail ukitzen ditu zaleen bihotzak. Burmuinerako tarte gutxi? Ez pentsa, hain gutxi ere ez, batez ere kontuan hartzen badugu ikusle bakoitzak bere baitan duen futbol estrategia bikain hori nola astintzen duen, gehienetan norbere taldearen emaitza hain ona ez denean.

Ikuskizuna, indarra, azkartasuna, ausardia, arrakasta, talde lana, estrategia eta askoz gehiago ere bada lehen mailako futbola.

Grina hutsa. Hori guztia da, eta batez ere lehen 10 taldeetan, edo lehen zazpitan, edo akaso lehen hiruzpalauetan. Hori guztia eta dirua, batez ere dirua. Dirua jokalarientzat, talde tekniko eta zuzendaritzakoentzat; dirua hortik zuzenean bizi diren guztientzat. Baina baita zuzenean bizi ez direnentzat ere. Agintariak ekonomia mugitzen duela diote. Kontzertu handiek bezala, edo Europako kultur hiriek bezala, edo autobide edo trenbide handiek moduan...

Talde handia, diru handia guztientzat, batez ere ogasunari aitortzen bazaio, jokalaria ospetsu eta maitatu askok hainbatetan nahia- go izaten baitute beren dirua atzerri- ra ateratzea, dena norbere herrialdean uztea baino. Ez, dirua beti ez da zerga bihurtzen, besteak beste hainbatetan klubek ez baitute dirurik ordaintzeko. Egia esan,

klubek eta beren zuzendaritzek badakite diruaren gainean, ia zorraren gainean beste, eta bada- kite hobe dela jokalaria batean milioi bat euro –edo bi, hiru, sei, hamar...– gastatzea, Ogasunari ordaintzea baino.

Eta badakite hori, lehen maila- ko futbola ez delako bakarrik orain arte esandako guztia, zerbait bada kohesioa baita. Kohesioa lorian –ai *La Rojaren* sasoi haiek– edo infernuan –utikan Bigarren B maila hori–. Miragarria da, txiro, aberats, zahar, ume, agintari eta langabe, guztiak bat, txalo, orro, malko. Kohesioa.

*Adibidez, familia batek ezin baditu 30.000 euro ordaindu etxerik gabe geratuko da eta listo*

**ZENBAT** diru irensten duen lehen mailako futbolak, egia da. Baina zenbat itzultzen dion gizarteari edo hala dioskute agintariak behintzat. Eta ez futbolak bakarrik, goi mailako basketak ere bai, diru ekarpena beste maila batekoa bada ere. Horregatik uler liteke, adibidez, diputazio batek 5,2 milioi euro ematea basket talde handi bati honek zorrak ditue- nean: baina lasai, azkenean 1,5 milioi bakarrik izango dira talde- entzat eta bestea diputazioareki- ko zorra ordaintzeko. Zuk zorra duzu nirekin, nik ematen dizut dirua eta zuk diru horrekin ordain- tzen didazu zorra. Borobila.

Beti ez da horrela, jakina, baina goi mailako kirolean bai, batez ere futbola, basketak edo formula 1 denean. Adibide bat: zuk 80 milioi euroko zorra duzu- la? Lasai, topatuko dugu modua

kitatzeko, garrantzitsuena da Bigarren B mailara ez jaitea. Gaizki egin zenituen gauzak eta nik utzi egin nizun, baina lasai, asko eman diozu gizarteari –berezi- ki patrika batzuei– eta konponduko dugu.

**LASTIMA** gisa horretako jokaldiek ez dutela berdin balio bizitza- ko beste alor batzuetarako. Berezi- ki balio du zorrak bankuei eta futbol taldeei eragiten dienean: bankuak zorretan, ekonomia gal- bidean; futbol taldea zorretan, sentimendu kolektiboa arriskuan. Baina etxebizitzan esparrurako, adibidez, erreskate publikoak ez du balio; sektore horrek ere diru asko eman izan du, baina zorraren meka- nismoak ez du berdin funtzionatzen. Adibidez, familia batek ezin baditu 30.000 euro ordaindu,

etxerik gabe geratuko da eta listo, topatuko du beste etxe bat, edo zubipean egingo du lo edo autoan edo, azken finean, zertarako daude lagun onak edo familia? Oroitzen ez dudana foru lurralde batean, 2013an 616 familia geratu ziren etxe gabe haien bankuekiko zorra ordaindu ezin zutelako, eguneko ia bi familia. Baina aizu, zer nahi dute bada? Zorra zorra da. Ordaindu ezean, zein gizarte zibilizatu litzateke hau? Horregatik, beren kabuz kolaboratu nahi ez duten familiengana bidaltzen dira poliziak eta elkar lanerako prest diren futbol zuzendariengana oga- suneko sailburuak.

Baina zer arraio, utz ditzagun kontuok eta murgil gaitezen festan. Topa dagigun eta bizi gaitezen betiko. Osasuna! ■

